

LEZO / Bihar ipuin kontaketa izango da liburutegian 'Martin Txiki eta Marizikin' ipuin bilduma kontatuko du Ixabel Milletek

L. Muguruza

Pasa den hilabete bezala, hil honetan ere ipuin kontaketa saioak izango dira asteazkenero. Bihar, Ixabel Millet ipuin kontalariaren txanda izango da eta Martin Txiki eta Marizikin ipuin bilduma kontatuko du liburutegian. Andreone Udal Liburutegiak eta Udalak elkarlanean herriko txikienengan literatur zaletasuna bultzatzeko egindako ekimenaren baitan izango da ipuin kontaketa.

Datorren asteazkenean, berriz, azken urtetan herrian ohikoa izan den ipuin kontalaria izango da, 4 eta 6 urte arteko haurrentzako emanaldia eskainiz: Pello Añorga oiartzuarra, hain zuzen. Ipuinen Jira-biran ipuin bilduma kontatuko du eta aurreko guztiak bezala, 18:15ean hasiko da saioa liburutegian bertan.